

«Dialektoak galtzea munduko hizkuntza guztietan gertatu da»



XABIER
KINTANA
Euskaltzaindiko
idazkaria

hiruka

127. zenbakia


2018ko maiatzaren 24tik 30era arte

125 urteko ondare esekia



JABIER GOITIA BLANCO | 4

BIZKAIA ZUBIAREN INGURIAN BERBETAN



Ibaizabalen alde bien arteko joan-etorriak egiteko baino gehiago balio du Bizkaia Zubiak; topalekua ere bada.

SABINO ARANA KALEA | 5

BERANGOKO SARBIDEA URBANIZATZEKO LANAK

Merkatariak hainbat kontuz kexatu dira obrak abiatu zirenetik. Alkateak, bere aldetik, uste du proiektua «beharrezkoa» dela.

MEMORIA HISTORIKOA | 7

ERREPRESALIA TUEI AHOTSA EMAN DIETE

Gerra Zibilaren eta Francoren diktaduraren gainean doktoresia eta liburua idatzi ditu Alazne Díez Muñoz plentziarrak.

MUSIKA | 10

ROCK AND ROLLAREN ARDURAGABEA

Inconscientes taldeak disko berria atera du. Banda horretan jotzen du Plentzian bizi den Aiert Erkoreka Baraiazarrak.

TXIRRINDULARITZA | 13

EZIN IBILTZETIK TXAPELA JANZTERA

Enara López Gallastegi errepideko Bizkaiko txapeldun berria da. Sopela Women's Team taldeko kideak lesio larria gainditu du.

Munduko transbordadore es

Getxo eta Portugalete artean dagoen zubi eseki transbordadoreak 125 urte bete ditu aurten. Mota horretako zortzi azpiegitura daude munduan, eta Bizkaikoa da zaharrena, baita hoberen kontserbatzen dena ere.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKI-MUNTAKETA: HODEI TORRES ▶

Bizkaia Zuba eraiki aurretik, eta denbora luzez, arrauneko bidaiari-ontzien bidez lotzen ziren Ibaizabalen bokalearen alde biak. Ohikoa izaten zen nekazariak alde batetik bestera ontziotan bidaiatzen ikustea, inguruko plazetako azoketara hurreratu guran. Portugaleteko sardinerak ere izaten ziren itsasadarren ertz horretan protagonista, erriberan batutako auzokideei portura heldutako produktu freskoak oihuka eskaintzen zizkietenak. XIX. mendean akabutik aurrera, oster, zubi eseki baten bitartez egin daiteke itsasadarren alde bien arteko joan-etorria, eta munduko txoko denetatik etorritako turistak eta bertako auzokideak biltzen dira inguruotan gaur egun, altzairuzko erraldoiaren handitasunak erakarrita.

Industria-iraultzaren ondoren, burgesek lekukoa hartu zieten arrantzaleei eta nekazariari Ibaizabalen bokalearen alde bietan. Portugalete Bilboko burgesiaren topaleku bilakatu zen. Garai horretan ere, apurka-apurka, Areetan udaldia igarotzeko etxeak eraikitzen hasi ziren, baita hainbat bainu-etxe ere. 1881ean tranbia heldu zen auzo horretara, eta 1887an tren. Urtebete geroago, 1888an, Bilbotik Portugaletera zihoan trenbidea ireki zuten. Egoera horretan, nukleo urbano berri bi horiek lotzea beharrezkotzat jo zuten garaiko agintariak, eta erronka horri heldu zion Alberto Palacio Elissague arkitekto eta ingeniari bizkaitarrak. Hainbat baldintza bete behar zituen lotune berri horrek: pasaiariak eta zama eroateko aukera egotea, industrializazio betean itsasadarrean zehar egoten zen ontzien garraio etengabea ez oztopatzea, eta eguraldi kaskarra zegoenean ere zerbitzua bermatzea. Hori betetzeko, askotariko aukerak aztertu zituen Palacio, baina aukera horiek denak baztertu eta bere proiektua garatzea erabaki zuen azkenean: zubi eseki transbordadorea.

AURREA HARTZEN. Palacio ez zen izan halako proiektu bat sortzen lehena: *Scientific American* aldizkariak J.V. Morse ingeniariak diseinatutako New York eta Brooklyn (AEB) arteko Zubi Eseki Transbordadore baten proiektua argitaratu zuen 1869an, eta 1873an Charles Smith ingeniariak Middlesbrough eta Port Clarence (Ingalaterra) arteko proiektua pentsatu zuen. Dena dela, ez bata eta ez bestea, ez ziren 1893ko uztailearen 28a baino lehen gauzatu. Egun horretan bertan inauguratu zuten Bizkaikoa, eta berau izan zen munduko lehena.

Garai hartako gizartearen ordezkari nagusiak hurbildu ziren arkitekturaren artelantzat jotzen zuten azpiegitura berritzaile hori beren-beregi ezagutzera. Zubiaren egurrezko lehen bagoi hura etengabe ibili zen egun horretan lehen klaseko eta bigarren klasekoak alde batetik bestera eroaten; lehenak estalitako jesarleketan jarrita, eta bigarren multzokoak gurdi, merkantzia eta animaliakaz banatu beharreko estali gabeko zatian. Orduetik, zerbitzua etengabe eskaini du zubiak, urtean 365 egunean eta egunean 24 orduetan. Bere historia osoan, lau urtez baino ez da egon geldi transbordadore esekia, Espainiako Gerra Zibilak eragindako zaurien ondorioz. Abiazio italiarrak hainbat alditan bonbardatu zuen azpiegitura, kalte larriak eragin gabe. Baina 1937ko ekainean, tropa nazionalak



2010

Jatorrizko kolore beltza aldatu zioten zubiari. Horren ordez, gorrixka ipini zioten, burdinaren kolorea birproduzitu.

2006

Uztailearen 3an, NBERen menpeko UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen Bizkaia Zuba.

45 metro

zuba osatzen duten lau dorreek 45 metroko garaiera dute. Eta horien artean alderik alde ibiltzeko oinezkoentzako pasabidea dago gaur egun.


160 metro

bokalearen alde biak lotzeko arkurik luzeenak 160 metro dauka.

heltzear zeudela, Ingeniari Militarren batailoiak itsasadarra zeharkatzeko aukera eskaini zezaketen baliabide denak suntsitzeko agindua jaso zuen, Francoren tropak igaro ez zitezela. Hala, hil horren 17ko goizaldean, zubiko kable parabolikoetako sehaska lehertu zuten, Getxoko aldean. Francoren erregimenak bere gain hartu zituen berreraikuntza lanak eta 1941ean berriro martxan ipini zen zuba. Jatorrizko diseinutik aldentzen diren aldaketa garrantzitsu bi egin zituzten soilik, habean eta esekitze-sisteman hain zuzen. Orduetik, zerbitzu etengabea eskaintzen duen garraio publiko bakarretarikoa da inguruan, eta beraren azpitik tamaina handiko zein txikiko askotariko ontziak ibiltzen dira egunero.

BAKARRAK MUNDUAN. Bizkaia Zuba industria-iraultzaren garaiko monumentu handienetako bat da. Eta aro horren erakusgarri zutunik dirauen bakarretarikoa. Bizkaikoaren ondo-

eski zaharrena, sasoi betean



1999

Beste hobekuntza batzuen artean, igogailu panoramikoa eta oinezkoentzako pasabidea egin ziren.

1941

Zubia berreraiki zuten eta jatorrizko diseinutik aldentzen diren aldaketa bi egin zituzten.

1937

Ingeniari Militarren Kidegoko kideek kable parabolikoen sehaskaren leherketa kontrolatua egin zuten.

1893

Zubia eraiki zuten, hiru urteko lanen ondoren, Alberto Palacioren eta Ferdinand Arnodinen gidaritzapean.

1888

Aurreproiektua aurreko urtean egin ondoren, zubi eseki handi bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zuten.

ren, mota horretako hogei zubi inguru eraiki ziren munduan, baina horietatik denetatik, Bizkaia Zubiagaz gainera, beste zazpi bakarrik dira: Rochefort (1900) Frantzia; Newport (1906), Warrington (1908) eta Middlesbrough (1911) Erresuma Batuan; Osten (1909) eta Rendsburg (1913) Alemanian; eta Buenos Aires (1915) Argentinan. Horiek denak monumentu kultural izendatuta daude euren herrialdeetan. Hala ere, denetatik Bizkaikoa nabarmendu beharra dago. Zubi eseki transbordadorerik zaharrena da, asmakizunaren patentea dauka eta, esan beharra dago, denetan ederrena da, baita hobereen kontserbatu dena ere. Hala, 1984an, monumentu historiko-artistiko izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak; 2002an, Europa Nostri saria jaso zuen; eta 2006an, Gizateriaren Munduko Ondare izendapena eman zion UNESCOk. EAEko mundu-mailako lehenengo ondarea izan da zubia, baita aitortutako lehenengo industria-ondarea espainiar Estatuan ere. ◀

Munduko zubien topaketa, uztailean

Bizkaia Zubiaren 125. urteurrena ospatzen dabilta aurten. Arduradunek azaldu dutenez, helburua da ahalik eta bisitari-kopuru handiena erakartzea. Ekitaldien agendan Munduko Zubi Transbordadoreen Kongresua sartu dute, uztailean, hain zuzen ere. Horretan parte hartuko dute gaur egun Frantzia, Ingalaterra, Alemanian eta Argentinan dauden zazpi zubien arduradunek. Urteurrenak, bestalde, bidea emango du programak, proiektuak eta sareak martxan ipintzeko, industria-turismoa bultzatuko dutenak, Bizkaia Zubiaren eta EAE osoaren inguruan, epe ertain-luze batean, arduradunen arabera. Zentzu horretan, urteko azken hiruhilekoan Industria Turismoaren Foroa egingo dute, Eusko Jaurlaritzaren eskumenez. Izan ere, «Gure ondarea: zeinetan iragana etorkizunarekin topatuko den» lemapean ospatuko dute Kultura Ondarearen Urtea 2018an. 125. urteurreneko sustatzaileek herritarrek animatu gura dituzte bertako kultura-ondarea ezagutzera, estimatzera eta horregaz konprometitzera. Horrez gainera, zubiaren ingurua kultura-, kirol- eta festa-ekitaldietarako agertokia izango da urte osoan zehar. Hainbat erakundek antolatutako ohiko programazioa oinarritzat hartuta, herritarrek askotariko ekintzez gozatu ahaliko dute.

JABIER GOITIA BLANCO | Bizkaia Zubiko aholkulari teknikoa

«Joan-etorriak egiteko baino gehiagorako da Bizkaia Zubia»

Bizkaia Zubia eskuinaldea eta ezkerrekoa lotzeko azpiegitura baino gehiago dela argi dauka Jabier Goitia Blancok. 125 urteotako aldaketez, urtemuga ospatzeko egitarauaz eta beste hainbat kontuz berba egin digu.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Bizkaia Zubiak 125 urte beteko ditu aurten. Bai, lehenengo zubi eseki transbordadorea izan da. Geroago beste hogeit hamar inguru egin ziren munduan. Asmakizun miragarria izan zen, baina oso arin pasatu zen modaz, automobila heldu zelako. Gaur egun, hori eta beste zazpi baino ez dira gelditzen munduan. Horregatik, uztailaren 26tik 28ra nazioarteko kongresu bat egingo dugu. Ideia da zubi horiek ere munduko ondare izendatzea; horretaz berba egingo dugu. Askok esaten dute ondarea hasieran zegoen bezala zaindu behar dela; hori ezinezkoa da. Aldaketa batzuk egin behar izan dizkiogu urteotan, garaietara egokitzeko, baina itxura orokorra berdina da oraindik ere.

Urtemuga hori ospatzeko zer-zelako egitaraua antolatu duzue? Askotariko jarduerak prestatu ditugu urte osoan zehar. Oraindik ez dago dena lotuta, baina gauza asko bai. Adibidez, ekainean Portugaleteko bonbardaketa gogoan hartzeko ekitaldian parte hartuko dugu eta duela bost urte jasotako 885 ipuinetatik bi argitaratuko ditugu laister. Horrez gainera, berbaldiak, abesbatza-emanaldiak, kale-antzerkiak eta horma-irudiak egongo dira, besteak beste. Gauza oso polit bat ere badaukagu buruan. Argentinan kamera-ilun bat jarri zuten, zulo txiki batetik zubia ikus zitekeena. Bada, hori gureru ekarri gura dugu.

Mende bat baino gehiago igaro da zubia eraiki zenetik. Hasiera-hasieratik berrikuntza izugarria izan zen. Zer egin daiteke orain azpiegitura hori abangoardian jarraitzeko? Orokorrean, zubientzako mehatxurik larrienetarikoa populazioa zahartzea da. Bezeroak izatea beharrezkoa dute zubiek bizirauteko, mantenua bermatzeko, besteak beste. Jendea zahartu ahala, lehenengo ohiturak galduz doaz, eta bezeroak ere bai. Gu lanean hasi ginean, 90eko hamarkadan, sei milioi bezero izaten genituen urtean; orain, ordea, hiru milioi. Hori gauza larria da, are gehiago 80ko hamarkadan zenbateko hori hamar milioikoa zela jakinda. Jendeak bestelako ohiturak hartu ditu.

Zelan aldatu du zubiak Bizkaiko gizartea? Hasieran ez zuen eragin handia izan. Jostailu moduan sortu zuten, baina horrek ez du esan gura egileek ez zekitelako zer etorriko zen ondorioz. Garai hartan Portugaleten zen udalerririk handia; aberatsa zen, eta Getxo aldean baserriak eta etxe batzuk baino ez zeuden. Zubia egin zenean, egileek bazekiten Areea inguruan padura denak elkartuko zirela, auzoa egonkortzeko. Lehenagotik ere tren eta tranbia heldu ziren bertara, eta hasierako urte haietan Portugaleteko aberatsek joaten ziren bertara, inguruko hondartzetara eta bainu-etxeetara. Sasoi hartan, dirudunak ezkerrean zeuden, baina Areetan etxeak egiten hasi zirenean aberastasuna lekuz aldatu zen. Zubi hori erabiltzen ez bazen, Bilbora arte joan beharra zegoen itsasadarra zeharkatzeko, eta halaxe izan da 80ko hamarkadara arte, Arrontegi zubia egin zuten arte.



El Transbordador de Vizcaya SL enpresak kudeatzen du Bizkaia Zubia, eta horretan aholkulari lanetan dabil Goitia.

Aldaketak zubian
«Askotariko aldaketak egin ditugu zubian, egoera berriei aurre egiteko. Dena dela, hasierako itxura orokorra mantentzea lortu dugu»

Meeting point
«Joan-etorriak egiteaz gainera, askorako balio du zubiak. Meeting point oso inportantea da, beti izan da. Leku oso ona da geratzeko»


Zergatik erabaki zuten mota horretako zubia egitea, eta ez aldez aldekoa? Itsasadar askotan gertatzen den legez, itsasontziek daukate zeharkatzeko lehentasuna. Lege baten arabera, egoera horietan, zubiek 45 metroko altuera zaindu behar dute itsasgoratik. Hortaz, zubi normal bat egiteko beharrezkoa izango zatekeen hiru kilometroko aldatsa egitea, eta hori ezinezkoa zen inguru honetan. Horregatik izan zen ona transbordadore eseki bat egiteko ideia.

Mugikortasunerako azpiegitura izateaz gainera, ikur bilakatu da Bizkaia Zubia. Zer dela eta? Haren berezitasunagatik. Batetik, lehenengoa izan delako, bestetik oso polita delako, eta horrez gain erabilgarria delako. Inoiz ez da gelditu, gerraostean baino ez. Garaiko teknologiarik modernoek erabili zituzten bertan, berbarako kableak. Ordura arte kateak erabiltzen ziren zubietan, baina ez ziren mantentzeko errazak eta kableak indar handiagoa zeukaten; horiei esker da Bizkaia Zubia hain handia.

Norena da zubia, Getxorena edo Portugaleterena? Ez da erraza horri erantzutea. Berezko izena Bizkaia Zubia da, baina hortik aparte, askok Portugaleteko Zubia darabilte. Herritar bakoitzak bere erara esango du. Dena dela, egokia izateko, Bizkaia Zubia esan beharko genuke. ◀

ERANDIO | Unbeko bataila

36ko gerra alda zezakeen gudua



Aspaldi kendu zituzten Unbe mendiko metrailadore-habiak. ASIER PÉREZ DE EULATEK UTZIA

Unbe menditik abiatuta, faxistak gelditzeko ahalegina egin zuen Pablo Beldarrain komandante errepublikanoak, baina bere buruzagiek aginduta asmoa bertan behera utzi behar izan zuen. Hala ekarri zuen gogora Asier Pérez de Eulate historiazaleak orain dela aste batzuk Erandion emandako berbaldian.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Burdin Hesia eta, oro har, 1936ko gerra aztertzeke zale-tasuna daukan Asier Pérez de Eulate bilbotarrak berbaldia eman zuen orain dela aste batzuk, Erandioko Ahal Dugu alderdiak gonbidatuta. Ekitaldian, 1937ko ekainaren 14an eta 15ean izan zen Unbeko batailari buruz berba egin zuen. Beraren ustez, «pasarte hark alda izan zitzakeen ondorengo egunetako gertaerak». Armada faxistak 1937ko ekainaren 11n ekin zion Bizkaia inbaditzeari, Burdin Hesiari gogor erasoz. «Hurrengo egunetan ezbeharrak bata bestearen atzetik gertatu ziren», Pérez de Eulaten adierazi duenez. Faxisten nagusitasuna erabatekoa zen: 142 artilleria-pieza zeuzkaten eta errepublikanoek, ordea, hemeretzi baino ez. Horrez gainera, matxinatuek 110 hegazkinen babesa zeukaten. Asturiastik, Galiziatik eta beste hainbat lekutatik etorritako milizianoek eta Euskal Herriko gudariak, osteraz, ez zeukaten hegazkinik, ezta etsaien aparatuak botatzeko armarik ere. Hala, 1937ko ekainaren 13ko 14:00etarako Artebakarran (Derion) zeuden indar nazionalak, frontean sei kilometroko zuloa zabaldu ostean. Bertatik sartu ziren Nafarroako lehenengo, bosgarren eta seigarren brigadak eta, herriz herri, Txorierrri osoa hartzen joan ziren. «Ordurako, gutxi gorabehera 4.000 zauritu eta hildako zeuden errepublikanoen aldean», Pérez de Eulatek zehaztu duenez.



Agirre lehendakaria

Espainiako Errepublikako Gobernuari idatzitako txostenean, Unbeko batailaz berba egin zion Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzako lehendakariak: «Ahaztu ezin dudana gerrako pasarteetako bat da. Beldarrainek buruan zeukan operazioak Bilbo askatuko zuen? Oso zaila da baieztatzea. Hondamendia izan zitekeen? Ez dakit. Baina oraindino, gaur egun, buruhauste gehien eragiten didan gerrako pasarte da».

SEKULAKO NAHASPILA. Historiazaleak argitu duenez, faxisten oldarraldia gelditzen ahalegintzen zebilen brigadetako bat Pablo Beldarrainek zuzentzen zuen: «Egon behar ziren lekuan ere ez zeuden; Mungian zeuden. Bada, faxisten erasoaldiaren berri izan zutenean, Unberaino atzera egin zuten, etsaiak Artebakarran zeudela uste zutelako». Erasoaldiari ekin zionean, daborduko matxinatuak Artebakarran ez zeudela konturatu zen Beldarrain; Lainomendi (Derio) eta Lauromendi (Gatika) hartuta zeuzkaten faxistek.

Arratiatik zetorren Ibaizabal batailoia ere ez zekien are-rioak non zeuden; hori dela eta, Lainomendin Nafarroako Falangeko hirugarren banderagaz topo egin zuten eta ehun hildako eduki zituzten, 1937ko ekainaren 14ko goizean.

Beldarrainek argi zeukan: etsaia aurrez aurre zeukaten. Hori dela eta, dibisioko zatietako bat Larrabetzura bidali gura zuen, eta bestea, matxinatuek daborduko hartuta zeukaten Ganguren mendira (Galdakao). «Ibaizabal batailoia aurretik zeukaten nazionalak; Beldarrainek atzetik joan nahi zuen etsaia inguratzeko, baina buruzagitzak debekatu egin zion. Izan ere, Artxandatik edo Bilbotik harago defenditzea zorakeriatzat jotzen zuten», Pérez de Eulateren berbetan.

BABESIK EZ. Hala ere, aginduei muzin egin eta, 1937ko ekainaren 14ko gauean, Lauromendin eraso egin zuen Beldarrainek. Faxistek ez zuten espero: 80 gatibu hartu eta nazionalak ihesaldian utzi behar izan zuten artilleria eskuratu zuten errepublikanoek. Handik Artebakarrera jo zuten, San Miguel tertzioa inguratuz. Baina buruzagitzak horren guztiaren berri eduki zutenean, atzera egiteko eta hurrengo egunera arte itxaroteko agindu zion Beldarraini. Erandio gau horretan bertan hartu zuten soldadu faxistek; handik Enekuriraino iritsi eta Txorrierrriko herriak berriro hartzen joan ziren matxinatuek. Amaituta zegoen Unbeko bataila. ◀



Sorburutik

**GOTZON
BATIKON
ETXEGARAI**
Plaza-gizona

Ahoan sortutako zapore mingots hau

Urtebete Iruñean egon ondoren, Uribe Kostara bueltatu eta zapore mingotsa sortu zait ahoan. Kresal usaina porlanarekin nahastu denean, herrien nortasuna garabiekin estaltzen ikusi dudanean eta eraikin handien itzala auzoen argia eramaten ari dela ohartzean.

Tristura, nostalgia, pena... Nire bihotzaren zati bat hondoratua izan balitz bezala. Ondo erakutsi ziguten «zaintzeko maite genuen hori», baina, egun batetik bestera biluzik esnatu da gure eskualdea.

Oraindik ere txoriak badira kantari, esperantza bizia dira, geratzen diren baserrien antzera. Santa Mariñeko haitzetan ikurriña ere negarrez ari da, Kantauri itsasoaren orroekin batera.

Bitartean nork berea, etorkizunak naturarekin lotura izango ez balu bezala, ondorengoek herentzia iluntasunez beteta topatu beharko dute...

Bestetik euskara, beti gora eta behera, urteak daramatzagu horrela hezten. Ikastoletan ikasi eta azterketetan ahazten dena. Plazetan ostera, erdara jaun eta jabe. Zergatik ez jolastu, guztiona dena? Altxor baten antzera gorde zigutena... Munduaren aurrean zabalduz aurrena.

Zuhaitz-adar gazteak, pozoirik ez dutenak, argia begietan islatzen lehenak. Dakarten ur berria dastatu dezagun, ilusio berriekin nahastu gaitezen. Bide berriak eraikiz, harrotasunez sentituz... Mundu zoro honetako puntu txiki bat garela, zerbait badugula baina, zaindu dezagun bestela, ez badugu elkar ulertzen desagertu egingo dela.

Amaitzeko indarra, sinesten dugun bakarra, lanarekin elkartuz ez dugu pauso makala. Erraza da kritika, zailena norbera aldatzea, bitartean nahastuko dut nire barne-logistika, kanpora jartzeko begira, barruan badut sokatira!

BERANGO | Sabino Arana kalea berrurbanizatzeko prozesua

Merkatariak haserre

Auzokideak hainbat kontuz keixatu dira Sabino Aranako lanak abiatu zirenetik. Alkateak uste du proiektua «beharrezkoa» dela kalea ordenatzeko.

IKER RINCON MORENO ▶

Sigi-saga egiten duen errepidea itxura hartzen doa apurka-apurka Berangoko Sabino Arana kalean, hesiz, beharginez eta hondeamakinez inguratuta. Udalerriko kale nagusia berregokitzeko lanak abenduan abiatu zituzten, komertzioaren aurrean aisialdirako gune berriak sortzeaz gainera, trafikoa geldotu guran. Aurreikusitakoaren arabera, lanon lehenengo fasea abuztuaren akabuan edo irailaren hasieran amaituta egongo dira.

Kalearen ordenazio berriagaz Berangoko auzune hori oinezkoentzat egokituta egongo litzateke, baina auzokideek ez dute argi ikusten hori hala izango denik. Deitoratu dutenez, azkenengo neurketek ondorioztatu dute egunero 10.000 ibilgailu baino gehiagok zeharkatzen dutela kalea joan-etorrian, eta horietatik dozenaka kamioiak direla.

Horrek ezinezona sortu du zenbait bizilagunen artean, errepidean ipinitako zoladura berria egokia ez delakoan. Diotenez, proiektuan aukeratutako galtzada-harrizko zoladura trafiko jakin baterako «bakarrik» da egokia. Anabel Landa Berangoko alkateak ere aitortu du zoladura berri hori ez litzatekeela egokia izango kamioiek kale horretatik igarotzen jarraituko balute. Azaldu duenez, ideia da kamioien joan-etorriak debekatzea, baina debeku-seinalea herrigunetik kanpo ipintzeko baimenik ez du eman oraindino Foru Aldundiak.

Berme hori egon arte zoladura berria ipintzeari utzi diote beharginek, eta hori lortu ezean, ormigoi-inprimatua ipintzea aztertzen dabil Udala. Ibilgailuen abiadurari dagokionez, alkateak azaldu du muga bat ezarriko duela kalen osoan, eta radar baten bidez kontrolatuko dutela hori. «Neurri horiekaz denakaz berez murriztuko da trafikoa Sabino Arana kalean», ondorioztatu du Anabel Landak.

«APARKATZEKO LEKURIK EZ». Gaur egun udalerriko inguru horretan dagoen aparkatzeko «leku eza» ere gogor salatu dute merkatariek eta ostalariek. Diotenez, aparkatzeko gabezia horrek eragin ekonomiko larria eduki du establezimendu askotan, orain arte beste auzo eta herrietako bizilagun asko ingurura autoz hurbildu ohi zirelako erosketak egitera. Berbarako, Xabier Begoña arrain-saltzaileak azaldu du obrak hasi zirenetik hona bezero ugari galdu dituela, arrandegiaren ondoan aparkatzeko lekurik ez dagoelako obren



Aurreikusitakoaren arabera, urbanizatzeko lanak irailaren amaierara amaituko dira. HODEI TORRES

Aparkalekuak

Kalearen hasieran eta amaieran egongo da aparkatzeko lekua. Gainera, denbora mugatu batean ibilgailuak uzteko tokiak ere egongo dira.

Trafiko-arazoak

Ibilgailuen joan-etorriak mugatze aldera, sigi-saga egiten duen bidea egiten dabilta. Abiadura ere mugatuko dute, radarrak erabilita.

Zoladura

Hasiera batean proiekturako aukeratutako galtzada-harrizko zoladura ez da egokia kamioiak ibiltzeko. Gaur egun dozenaka kamioi igarotzen da Sabino Arana kaletik egunero.

eraginez. Horren aurrean, salatu du Udalak ez duela «ezer egiten» merkataritxien alde, eta ez daki berregokitzeko lanak amaitu ostean egoera hobera joango den edo ez. Horri erantzunez, Anabel Landak argi utzi gura izan du proiektuak ibilgailuak aparkatzeko hainbat leku aurrekusten dituela, kalearen hasieran eta amaieran hain zuzen ere. «Are gehiago, leku horietatik denetatik batzuk aparkatzeko denbora-muga jakin bat edukiko dute, erosketak egin gura dutenentzat, alegia», azaldu du alkateak. Era berean, gogoratu du Sabino Arana kalearen inguruetan ere aparkatzeko beste hainbat leku daudela, hala nola «milian» eta metroaren goiko aldean.

ZARAMA-ONTZIAK, AURRERA ETA ATZERA.

Auzo horretan zarama batzeko edukiontzien kokalekuak ere ezinezona eragin du auzokide askoren artean. Diotenez, orain dauden lekua «ez da egokia», atalondoetatik hurbilegi daudelakoan, eta horiek lekualdatzeko sinadura-batuketara abiatu dute. Horren aurrean, alkateak azaldu du prest dagoela auzokideak edukiontzia horien kokalekua adosteko. Hala ere, aitortu du zaila izango dela bizilagun denentzako egokia den tokia aukeratzea, batzuentzat ona dena beste batzuentzat kaltegarria izan daitekeelakoan. Azaldu duenez, une honetan aukera bi daude: orain dauden moduan mantentzea, atalondotik 2,5 eta 7 metro artean kokatuta; edo kalearen sarrean eta irteeran ipintzea irla denak. Oraindino ez dago erabakita non finkatuko diren horiek denak. ◀

ALAZNE DÍEZ MUÑIZ | Antropologia-doktorea eta soziologoa

«Gerra bizi izandakoek daborduko ez daukate zer ezkutatu»

Gerra Zibilaren eta Francoren diktaduraren gainean Antropologiako doktore-tesia eta liburu bat idatzi ditu Alazne Díez Muñozek (Plentzia, 1946). Aurretik, garai hartako errepresaliatuak elkarrizketatu zituen.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶



Díezek historia kontatu, justizia soziala egin eta «berradiskidetzea eta bake iraunkorra» gura ditu. HODEI TORRES

La memoria, herida abierta. Guerra Civil y Franquismo liburua aurkezten zabilta. Zelan ekin zenion proiektuari? Antropologiako doktore-tesia egin nuen Deustuko Unibertsitatean. Ilusioa neukan liburua argitaratzeagatik, landa-azterketa zabalago egin nuelako. Historia denok ezagutzen dugu, baina elkarrizketak... Jendearen sentimenduak, sufritu zutenak, bizi izan zutenak, kontatu zutenak... Zuzeneko lan hori galtzea penagarria litzateke, bizipen horiek idatzi ezean desagertu egingo liratekeelako. Deustuko epaimahaiak ere bultzatu ninduen liburua argitaratzera. Liburuan bada historia asko inork kontatu ez duena edo nahikoa entzun eta ulertu ez direnak. Liburuan jende ezaguna dago, barbarako Arzalluz edo Joseba Agirre, lehen-dakariaren semea, baina jende arrunt asko ere badago, inork inoiz ezer galdetu ez diona. Eta nik uste nuen lekukotasun horiek iraunarazi behar nituela.

Elkarrizketatuen artetik zeintzuk azpimarratuko zenituzke, eskualdekoen artean? Uribe Kostan bi nabarmenduko nituzke: Elias Díez Agirregoitia eta Benito Otazua Asua. Lehenengoa nire aita zen, Sopelakoa, gizon altua, indartsua, sokatiralaria eta 15. langileen batailoiko kidea, gatibu-lanak egiteko. Hau dena hasi nuenean, nire aita daborduko hilda zegoen, baina datu horiek ezagutzen nituen. Eta hori izan zen liburua idaz-

Lubakitik ateratako gaztearen gorpua

Alazne Díezek akordura ekarri du bere aitak hainbatetan kontatu zion historia bat. Horrelakoetan, «begirada nonbait finkatzen zuen, gerra ostean ikusitako irudi haiek desagertu izan ez balira bezala». Behin langileen batailoira gizon bat hurreratu zen laguntza eskatzera, hil zioten semea topatzeko. Elias Díez boluntario aurkeztu zen eta gizonagaz eta beste langile batzuek lubakietan jardun zuen, gorpuak lurretik ateratzen. «Ez, hau ez da nire semea; hau ere ez da zioen gizonak, «bai, hauxe da» esan eta besoen artean heldu zuenera arte. 23 urteko mutiko ilehoria zen, eta kolkoan sagar batzuk zeuzkan. «Sagarrena umea nintzenetik entzun nion aitari, begirada nonbait finko ipinita zuela», gogoan dauka orain Díezek.

teko eduki nuen beste arrazoi bat. Etxean gerraren gainean berba egin genuen, gorroto edo errebantxa-gogo barik, baina gurasoak zendu ostean, pentsatu nuen gehiago sakondu behar nuela. Egunkarietara idatzi nuen 15. langileen batailoiko beste norbait topatzeko esperantzaz. Eta Urdulizko gizon batek idatzi zidan bueltan, Benito Otazua Asua idazleak. Gaur egun hango liburutegiak beraren izena daroa. Otazua nire aita baino zazpi urte zaharragoa zen; biek elkar ezagutzen zuten. Beste konpainia batean egon arren, aitaren batailo berean zebilen.

Zein da gehien hunkitu zaituen lekukotasuna? Azkenean, denak. Barbarako, Otazua elkarrizketatu nuenean, 90 urte zeuzkala, birritan ekin zion negar egiteari. Hori niretzat oso gogorra izan zen. Bera batailoian zegoen eta bere aita [Benito Otazua Artaza], kartzelan, «soilik herriko alkatea izateagatik, eta ni, alkatearen semea izateagatik», esan zidan. Negargura gehien sortzen ziona zen akorduan edukitzea biak kartzelan zeudenez amak hiru anaia txikiez eta baserriaz kargutu behar izan zuela, bakarrik. Lekukotasun denetan, jendeak bere sentimenduak oparitu zizkidan: pasa zuten gose izugarria, gaixotasunak, zabarkeriak, ihes egiteagatik hil zizkieten lagunak... Jende nagusi horrek daborduko ez dauka zer ezkutatu, eta ez dabil mendeku-gosez. Eskuzabaltasuna irakatsi digute. ◀

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes
Areeta
Leioa
Berango
Sopela
Guarderia
Jantokia
Jantokia
Jantokia
Oui
KIVIA
Auzolana
Berrikuntza
KIVIA
Traketa kooperatiboa
Algorita

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

AIXERROTA BHI IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)
DBH 2: Matematika (Euskara/English)
DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez

- Zientzia modalitatea
- Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela

INFORMAZIO -
Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

«Etorkizuneko euskara batua»



Euskaltzaindiko idazkari modura azken txanpa egiten dabil Xabier Kintana. Udagoiengan hasiko ditu Euskaltzaindiak bere 100. urteurreneko ospakizunak, eta horiek amaitutakoan utziko du kargua.

Hogei urte bete orduko euskaltzain urgazlea zen Xabier Kintana (Bilbo, 1946), baina batuaren oinarriak finkatu ziren Arantzazuko batzar ospetsua egin zenean, urrun zegoen bera. Soldadutzan. 1996tik euskaltzain osoa da, eta 2002tik erakundeko idazkaria. Erandion bizi da.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Euskara batuak mende erdi, nork esan behar zizuen 1968an saltsa horietan zenbiltzatenoi... Euskaltzaindiak hasieratik, orain dela ehun urte sortu zenetik, zeukan euskararen batasuna helburu. Kontua zen batasuna egitekotan, erdiko dialektoen inguruan egin beharra zegoela. Bi dialekto daude ertzetan, Zuberoakoa eta Bizkaikoa. Zuberoakoa azken buruan txikia da eta ez du horrenbesteko garrantzirik, baina Bizkaikoa oso garrantzitsua da, ia hiztunen erdia dira... Bizkaian bazegoen, Sabino Aranaren bidetik, konfederazio bat egin behar zelako ideia, euskal estatuen artean... Horren arabera, euskalki guztiak landu behar ziren. Batasuna bizkaieraren inguruan izan balitz, jen-

Batua eta ezkertiarrek

«Euskararen batasunaren liderra, Luis Mitxelena, begi onez ikusten zuten sabindarrek. Hori inportantea zen, garai hartan ezkertiarrok egin ohi genuelako batasunaren alde»

de askok baietz esango zuen Bizkaian, baina ez zen hori kontua, kontua zen batasun orekatua eta euskaldun guztientzako behar zela. Eta begien bistan dago ertzetako dialektoak, mundu guztiko hizkuntzetan, urrunduena izaten direla.

Hori gainditzeko 50 urte behar izan zituen Euskaltzaindiak, 1918an sortu zenetik. Kontuan hartu behar da 50 urte horiek ez zirela urte normalak izan. Francopeko Euskaltzaindia legez ez zen existitzen; toleratua bazen, baina... Batasuna ez zen planteatzen planteatzeko modurik ez zegoelako.

Azkenik, 1968an abiatu zen batuaren sorrera. Zelan bizi izan zenuen zuk prozesu hura soldadutzako «erbestetik»? Batasunaren aldekoa banintzen soldadu joan baino lehen ere. Beharrezkoa iruditzen zitzaidan. Munduko hizkuntza guztiek, ofizialtasun-maila batera heltzen direnean, nahi eta nahi ez batasunaren desafioa gainditi behar izan dute. Irakaskuntza, publizitatea... Horrek eskatzen du hizkuntza homologatu bat izatea. Kontua da Lekuonak, orduko euskaltzainburuak, esaten zuela euskalki guztiak landu behar zirela eta abar... Azke-

izango da, edo ez da izango»

nik, Gabriel Arestik bultzatu zuen Arantzazuko batzarra egiteko, Euskaltzaindiaren 50. urteurreneko ospakizunak ikusita. «Ondo dago jatea eta edatea, baina egiteko bat ere badauka erakunde honek», esan zuen, eta aktan ipini zedila eskatu. Horrek ekarri zuen gero Arantzazuko bilera egitea.

Aresti bultzatzaile, baina Mitxelena gidari. Batasunaren lidera, produktuaren diseinatzailea, Luis Mitxelena izan zen, bai. Haren euskaltzaleasuna eta abertzaleasuna dudagabekoak ziren, gerra-denboran hiltzera kondenatuta egon zen... Esan nahi dut sabindarrentzat ere onargarria zela, begi onez ikusten zuten. Hori oso inportantea zen, garai hartan batasunaren alde egiten genuenok ezkertiarrek izan ohi ginelako. Komunista, marxista... ez dakit zenbat gauza esaten ziguten. [Aita] Villasante marxista, bai ba!

Modu batean edo bestean, kontua da batuaren oinarriak ipini zituztela Arantzazun. Bai. Lehenengo eta behin, ortografia. Gero deklinabidea, eta aditza. Gauza sinpleak erabaki ziren, baina bidea markatu zen. Ni aditza aztertzen ari zirenean itzuli nintzen Euskaltzaindira, soldadutzatik. Eta ikuspegi politiko batetik harrigarria izan zen: nahiz eta batuaren sorrera oro har ezkerreko jendeak bultzatu, lider modura Mitxelena aitortzen genuela guztiok, eta Mitxelena EAJkoa izanda, oso erraza izango zukeen EAJk esatea «Mitxelenak egin du batasuna eta hau gure gain hartuko dugu, gure gizona da eta». Gutako inork ez zukeen txintik esango. Baina ez zuten jakin horretaz baliatzen. Esango nuke garai hartako EAJko buruek ez zekitelako batasuna egiten ari zenik, Jupiterreko gauza arraro bat baltitz bezala. Garaikoetxea lehendakari izan arte ez zen inolako pausorik egin alde horretatik, Mitxelenaren alde. Esango nuke Mitxelena nahiko bakarrik ibili zela, ezkerreko edo bestelako jendeak bultzatuta.

Zelangura, prozesuak aurrera egin zuen. Bai, baina harrigarria izan zen Arantzazuko batzarra amaitu eta hasieran ez zela inolako pausorik eman bide horretatik segitzeko.

Testuinguru politikoak ez zuen lagunduko. Hego Euskal Herrian frankismoa zegoen oraindino, besteak beste. Ez zen horregatik, politikak ez zuen ez alde ez kontra egin, Franco eta hemengo abertzale gehienak ez ziren horretan sartzen.

Baina agian garai korapilatsu hartako abertzaleentzat hizkuntza ez zen lehentasuna. Bilbon, herri deseuskaldundu batean, Sabino Aranaren jarritako naziotasunaren oinarriak faltuak eta oso kaltegarriak izan ziren. «Inportanteena ez da hizkuntza, arraza da». Eduki dugun etorkin mordoa integratu nahi baduzu, hori esatea suizida da. Giro hori zegoen, eta euskarak, ba tira, herrian, familian... bazuen lekutxo, baina gauza praktikoetarako ez. Pentsa, gerra ondoan hasi zen euskara erabiltzen Euskaltzaindiko lan-hizkuntza moduan, lehenago erdaraz egiten zen. [Federico] Krutwigek bultzatu zuen euskara erabiltzea, bileretan eta. Krutwigek ikuspegi moderno ekarri zuen Euskaltzaindira, nazioartekoa. Baita zenbait gehiegikeria ere.

Arantzazuko bileraren ostean, hasieran, bidean aurrera egiteko pauso handirik eman ez zela esaten zenbiltzan. Bai, hala da. Azkenean hauteskundeak egin ziren Euskaltzaindian, euskaltzainburu berria aukeratzeko. Lehenago ez ziren egiten, baina norbaitek eman zuen estatutuen arabera egin behar zirela. Izan ziren hainbat «konspirazio» eta batzuek erabaki zuten Aita Villasante aurkeztea, Mitxelenaren onspenaz. Boto gehienak batu zituen. Eta Villasanteren denboran gauza ga-

Batua eta bizkaiera
«Euskara batuan ahalik eta bizkaierazko elementu gehien sartzea nahi genuen, bizkaitarrek ez zezaten esan “hau ez da gurea”»

«Kintanakeriak»

«Idazleok, kazetariak... ahalegina egin behar dugu euskalkiek dauzkaten berezitasunak bultzatzeko», dio Xabier Kintanak. Arazoa da, ordea, Euskaltzaindia barruan ados ipintzea ez dela beti erraza. Bizkaian bakarrik erabiltzen den «neba» berbarean adibidea aipatu digu erakundeak idazkariak: «Ni batuan sartzearen aldekoa naiz, hau da, araua izan dadila, aberastu egiten du eta. Baina gipuzkoarrak ez dira hitz horrekin ordezkatuta sentitzen eta... Horiek “kintanakeriak” omen dira».

1968ko giro politikoa
«Garaiko politikak ez zuen egin ez batuaren alde ez kontra, Franco eta hemengo abertzale gehienak ez ziren horretan sartzen»

Pintxo-potea, edo erdararekiko morrontza

«Esango nuke Sabino Aranaren garaiko purismo absurdotik kontrako muturrera pasatu garela. Pintxo-pote, esaterako». Bistan denez, Kintana kexu da euskarak bere lexikoa sortzeko daukan gaitasun (edo gogo) ezaz: «Edozein erdaldunek asmatzen du edozein gauza eta tx ipiniz gero euskara omen da. “Kuantiko” esateko nazioarteko hizkera erabili beharko dugu, noski, baina “pintxo” esateko ez geneukan hitz hoberik? Euskaraz badago txitxiburduntzia, pintxo morunoen modukoa. Janaria landarekia ez den parte da txitxia, okela, edo arraina. Nik proposatu nuen tabernetan zotz bat ipinita saltzen direnei txitxi-zotza esatea, edo halako zerbait. Jakina, sasoiak asmatu behar da hitza, orain beranduegi da. Baina inork ez digu galdetu nola esango genukeen Euskaltzaindian. Pintxo-pote ipini eta kito».

rrantzitsu bat egin zen: ordura arte ia batzorderik ez zegoen, gauza guztiak guztien artean erabakitzen ziren. Eta hark esan zuen, «honela ezin da». Batzordeak egin ziren, bakoitzak nahi zuenean izena eman eta gero erabakiak osoko bilkurara eramaten ziren, bertan berresteko, zuzentzeko... Sistema horrekin eman zitzaizkion azken ukituak idazkerari, ortografiari. Egia esan horretan ez zegoen inongo arazorik. Gogorragoa izan zen aditza laguntzailea, ni batzorde horretan egon nintzen.

Zergatik gogorra? Alde handiak daudelako euskalkien arabera: eman dizut, eman derautsut, eman dautsut. Gure artean, Krutwigek zeukan prestigioagatik, askok lapurtera klasikoren alde egiten genuen. Mitxelenak, berriz, nahiago zuen gipuzkera eta nafarreraren sistema. Bizkaitarrok ikusi genuenean argi eta garbi bizkaierazkoa ez zela aterako, nahi genuen, gutxienez, euskara batuan ahalik eta bizkaieraren elementu gehien sartzea. Bizkaiko jendeak esan ez zezan «aizu, euskara batu hau ez da ulertzen, ez da gurea inondik ere». Horregatik, «izan» aditzean, ni naiz, hi haiz, hura da, eta gu gara, gu gerra-oren orde. Gara Bizkaian esaten da, baina baita Lapurdin, Nafarroan eta beste leku askotan ere.

Tarteka bueltatu egiten da batuaren eta euskalkien arteko harremanaren gaineko eztabaida. Halako momentu batean gaudela esango nuke, gainera. Hor badira irizpide zientifikoak eta irizpide interesatuak. Batzuek esaten dute «naturalena euskalkia da», «bizia hor dago»... Baina badira pertsona batzuk esaten dutenak «nik ez dut inoiz estudiatu ezer, ez euskalkia ez batua, baina gutxienez bizkaiera badakidanez, bizkaieraren alde egingo dut, horrela ez dut euskara batua ikasi behar». Behin Ermuko alkate batek esan zidan «nik euskara baturik ez dut behar, bertokoekin hitz egiteko nahikoa badut». Zelako pentsaera, «nik ez dut ezer irakurtzen euskaraz, ez dudalako ulertzen euskara idatzia». Baina ez dakizu euskara idatzia, ez batua ez euskalkikoa. Eta batuaren kontrako hori esaten duzu, zure euskalkian ezkutatzeko mintzatze-mailan, baina ez idatzizkoan. Jende asko dago horretan: dakien bakarra herrikoa da, eta orduan defentsa egiten du interesatzen zaiolako, lotsagarri ez gelditzeko. Ze, norbaitek esan dezake «zuk zergatik ez dakizu bestea, analfabetoa zara orduan? Eta analfabetismoa onartzen duzu?». Pertsona bati ezin diozu hori leporatu aurpegi, ez da gizabide onetokoa, baina...

Beti esaten da euskalki bat baldiz gero euskara anputatu egiten dela, zelanbait. Bestalde, agerikoa da hizkuntza oso garatuetan dialektoen arteko aldea askoz txikiagoa dela euskalkien artean baino. Traumarik gabe onartu beharko genuke galera hori? Dudarik gabe, munduko hizkuntza guztietan gertatu den galera da. Hala ere, gaineratuko nuke ahalegina egin behar dugula euskalkiek dauzkaten zenbait berezitasun «pertsonal» batuan txertatzeko. Hori bultzatu nahi dugu batzuek, Bizkaitik behintzat.

«Euskaltzaindia etengabe arau berriak ematen eta hiztunak zorutzen dabil». Egia, mitoa...? Mitoa da. Eta gauza batzuk ez dira transmititzen arauaren bitartez, baizik eta irakurritik. «Hara, orain arte hau honela esaten zen eta orain begira nola dakarren idazle honek». Beraz, kontua ez da Euskaltzaindiak esaten duela, baizik eta usadioak aldatzen direla.

Zer ekarriko du etorkizunak? Etorkizuneko euskara batua izango da, edo ez da izango. Eta izango ez bada, galduko dela. XXI. mendean pentsatzea hizkuntza bat bizi daitekeela literaturatik aparte, dauzkagun medio teknologikoak aintzat hartu gabe, amets hutsa da. ◀

AIERT ERKOREKA | Inconscientes taldeko teklatu-jolea

«Filmetako musika egitea gustatuko litzaidake»

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Gernikan jaio eta Mungian hasi arren, gaur egun Plentzian bizi da Aiert Erkoreka Baraiazarra; Extremoduro eta Inconscientes taldeetan teklatua eta pianoa jotzen ditu. Horrez gainera, Tekla izeneko musika-tallerra dauka Gorlizen. Inconscientes taldeagaz batera *No somos viento* diskoa plazaratu berri du.

Zer dauka *No somos viento* aurreko diskoek ez daukatena? Agian, jorratutako estiloa izan daiteke disko berri hau aurreko lanetatik bereizten duena: rocka da nagusi. Horrez gainera, abesti batzuk gogorragoak eta zuzenagoak dira. Lehenengo diskoan ere rocka landu genuen. Hala ere, bigarrena beste modu batean egin genuen. Esan daiteke hirugarren honetan gure hastapenetako doinuetara bueltatu garena: barbarako, *riff* indartsuagoak entzun daitezke lan berrian.

Zer gai jorratu dituzue disko honetan? Gauza asko. Azken finean, Inconscientes taldeko zaleetako batek gure abestien letratan uler dezakeena ez du zertan izan konposatzean guk eman diogun zentzu berbera. Diskoari izena ematen dion kanta nik neuk konposatu dut, eta *Entre otras vidas* izeneko, azkenekoa, ere bai. Balada bat da. Neurri batean, bilatzen dudana da entzuleek kantaren letra hartzea eta gurago duten moduan ulertzea.

Noiz hasi zinen Inconscientes taldeagaz? Lehenengo diskoa, *La inconsciencia de Uoho* 2007an atera zuen taldeak, Muxik ekoiztetxeagaz; Iñaki Antón *Uoho* taldekideak horrela eskatuta, hainbat kontzertu eman nituen eurakaz, «soldatapeko» musikari legez. *Quimeras y otras realidades* (El Dromedario Records, 2016) izenburuko lanean, artean, ez nintzen taldeko kidea. Hala ere, ostean, Iñakik jakin zuen pare bat abesti neuka-



Extremoduro eta Inconscientes taldeetan pianoa eta teklatua jotzen ditu Aiert Erkorekak. HODEI TORRES



No somos viento

El Dromedario Records, 2018

Inconscientes taldeko hirugarren lana da maiatzaren 18an aurkeztu zutena; El Dromedario Record diskoetxeagaz egin dute eta bederatzi abestiz osatuta dago. Kantak grabatzeko orduan, Fito, Carlos Tarque (M-Clan) eta Kutxi Romero (Marea) eduki dituzte lagun Inconscientes taldeko kideek.

la buruan eta taldean sartzeko proposatu zidaten. Lehen aipatu legez, hirugarren diskoak *No somos viento* eta *Entre otras vidas* abestiak nik konposatu ditut.

Esan daiteke, Robe Iniestaren Extremodurotik sortutako taldea dela Inconscientes. Bai. Denok gara Extremoduroko musikariak, Jon Calvo abeslaria izan ezik. Robek buru duen taldearen «opor» batzuetan Iñakik beste talde bat egitea proposatu zuen: horrela sortu zen Inconscientes.

Hala ere, estilo aldetik ezberdinak dira Extremoduro eta Inconscientes taldeak. Inconscientes rock and roll talde bat da; Extremoduro, ordea, rocka egiteko beste modu bat da. Barbarako, *No somos viento* diskoa 1970eko hamarkadako rockerrei egindako keinua da; garai horretako bandak dira guri gehien gustatzen zaizkigunak.

Fitogaz ere ibili zinen. Fito & Fitipaldis taldearen *Lo más lejos, a tu lado* (DRO, 2003) diskorako deitu ninduen; piano-so-nua behar zuten. Los Rebeldes taldearen *Quiero ser una estrella* abestiaren bertsioa egin genuen. Oso polita izan zen.

Zer gehiago daukazu egiteko musika-munduan? Orain arte egindako denagaz oso gustura nago; rock and rolla pilo bat atsegina dut. Hala ere, filmetarako musika egitea gustatuko litzaidake, eta daborduko zertxobait egin dut. ◀

TXIBERRI
edantokia

Frontoi partikularra,
terraza estalia,
bokatak,
artisansu-garagardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 · URDULIZ · 946.760.715

Tontorrari euskaraz ekinez



LEMOIZ | Mendiak ere euskaraz
Maiatzaren 27an ibilaldia egingo dute Andia mendilerroan, ohiko jardunean euskaraz bizi diren hainbat mendi-taldek antolatuta. Tartean dira Mendiak Euskaraz, Marimendi, Mendiak eta Herriak, Lemoizko Etxandarri, Donostiako Añorga eta Platerotarrak, Donibane Lohizuneko Begiraleak eta Hondarribiko Blagan. Mendi irteera Lizarragako bentan hasiko da 09:00etan, eta 22 kilometro dauka; aukera egongo da ibilbide «errazagoa» egiteko. Etxandarrikoakaz harremanetan ipintzeko: 688 602 121 (Marian).

Antzerkia

Maiatzak 26, zapatua
Mis noches de París
19:00 | Antzokia | Berango

Antzerki Amateurraren VII: Jaialdia. Txirlora antzerki-talde berangoztarragaz. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4 euro.

Hozkailua

21:00 | Azebarri kulturgunea (Algorta) | Getxo
Azebarrik antolatutako antzerki-jardunaldien barruan. Huts Teatroa taldeagaz. Helduentzat. Euskaraz. Sarrera: 5 euro (bazkideak) / 7 euro.

Maiatzak 27, domeka

Linbo planeta

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Dejabu Panpin Laborategiagaz. Euskaraz. Sarrera: 4 euro (umeak) / 6 euro (helduak).

Maiatzak 30, eguaztena

Munduko ipuinak

18:00 | Astrabuduko liburutegia | Erandio
Ines Bengoa ipuin-kontalariagaz. 5 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Maiatzak 24, eguena

Apurte kapitalaren Europa

19:00 | Itzubaltzetako kultu etxea | Getxo
Askapenak eta Brankak antolatuta. Alemaniako, Donbasseko eta Italiako hizlariakaz. Doan.

Maiatzak 30, eguaztena

Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama

19:30 | Kasinoa | Plentzia
Literohitura taldeak antolatuta. Alaine Agirrerren liburuari buruz berba egingo dute. Euskaraz. Doan.

Erakusketak

Maiatzak 27, domeka

Plentziako Klasikoak

09:30-16:00 | Ontziola plaza | Plentzia
Plentzia Classic ibilgailu klasikoaren lagunen elkarteak antolatuta. Doan.

Jaialdiak

Maiatzak 25, barikua

Aimarren eta Araitzen alde

19:30 | Kultur etxea | Urduliz
Urdulizko Udalak antolatuta. Ongintzako jaialdian, Iñaki Basabe abeslariak eta Beti Aurrera, Azul Bilbao eta Los Txikis taldeek parte hartuko dute. Sarrera: 5 euro.

Maiatzak 26 eta 27

Erandioko Gazte Asanbladaren hamaikagarren urteurrena

Altzaga | Erandio
Zapatuan, besteak beste, tailerrak (12:30), triki-poteoa (13:30), herri-bazkaria (15:00) eta Djek giratutako kalejira (19:00) egongo dira. Domekan, berriz, Txalainak taldearen kontzertua eta parrillada (20:00) egongo dira, ontziralekuan.

San Miguel Getxo Music & Food

12:00-21:00 | Algortako Portu Zaharra | Getxo
Zapatuan, Mr. JL, The Reverendos, Venice, Debajo del Paraguas eta Jayhawks taldeek joko dute. Domekan, berriz, Bringas, Ontario, Hi, Kaotic Lovers eta Cloverwind bandak igoko dira eszenariora. Sarrera, doan.

Jardunaldiak

Maiatzak 23 eta 24

Getxon 24 ordu euskaraz

Itzubaltzeta/Romo eta Algorta | Getxo
Eguaztenean, bideo-proiektzioa, Tor magoaren ikuskizuna eta Kresaltxu kantari-taldearen emanaldia egongo dira, 20:00etan, Itzubaltzetako Santa Eugenia plazan. Eguenean, berriz, berbodromoa egingo dute Santa Eugenia, 09:00etan eta 11:00etan; eta Algortako San Nikolas plazan, 19:00etan.

Maiatzak 25, barikua

Parkean olgetan

17:30 | Santa Eugenia plaza (Romo) | Getxo
Sendi egitasmoagaz. Umeentzat. Euskaraz. Doan.

Musika

Maiatzak 24, eguena

X Lignum (rock)

20:00 | Kandilejas taberna (Romo) | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuituaren barruan. Doan.

Maiatzak 25, barikua

Kantalaguna, Txomin Artolagaz

17:00-21:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Plentziako Kantagune taldeak antolatuta. Ondoren, kantu-jira eta afari-omenaldia egingo dituzte. Aurretik izena ematea beharrezkoa da.

OIZpe Sax 5tet eta Gehi Zazpi

19:00 | Antzokia | Berango
Saxofoia eta pianoa jotzen duten bost lagunen eta biolontxelo-taldearen emanaldia. Sarrera, doan.

Zinema

Maiatzak 24, eguena

Ahora o nunca

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Doan.

Maiatzak 25, barikua

Baskavigin: la matanza de los balleneros vascos

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Aitor Aspe zuzendariak parte hartuko du. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

Lamiakoko jaiak

Maiatzak 25-Maiatzak 27



Maiatzak 25, barikua

16:30 Txupinazoa eta jaien hasiera.
17:30 Lamiako Maskaradaren lehenengo zatiaren hasiera, Putzegilearen biribilgunean.
17:00 I. Argazkigintza-txapelketa.
17:30 I. Balkoien Apainketa-txapelketa.
18:00 Lamiako Maskaradaren bigarren zatia, txosnaren ondoan.
20:30 Leioako Musika Banda: *Classic wind band concert*.
21:30 Ogitartekoak, txosnan.
22:30 Lamiako Maskaradaren hirugarren zatia, eliza ondoan.
00:00 Dantzaldia, Urrats taldeagaz. Atsedendian (02:00) irrintzi-txapelketa.

Maiatzak 26, zapatua

08:00 Lamiakoko V. Lapiko-txapelketa.
10:00 Txupinazoa.
11:00 Umeentzako tailerrak.
12:00 Kalejira eta buruhandiak.
13:00 Apar-festa, eskolako patioan.
13:30 Igel-toka txapelketa.
14:00 Lapikoen aurkezpena.
16:30 Lapikoen sari-banaketa.
17:30 Tiragoma-txapelketa.
18:00 Dantza-erakustaldia, eliza ondoan.
20:00 Txorizoa sagardotan.
20:30 Mozorro-lehiaketa.
22:30 Tolín transformista.
23:30 Bingoa.
00:00 Disko-dantzaldia, Galcker taldeagaz. Atsedendian (02:00) bingoa.

Maiatzak 27, domeka

10:00 Txupinazoa.
11:00 Umeentzako gaztelu puzgarriak.
11:00 Meza.
13:00 Herri-kirolak.
14:00 XV. Txapel-jaurtiketako txapelketa.
17:30 Lamiakoko XIV. playback-lehiaketa.
18:00 Goatekea, Sergio Ibarguenagaz.
20:00 Sari-banaketa.
21:00 Azken traka eta jaien amaiera.

11 EGUN EUSKARAZ

RANDIO EUSKARALDIA

AURKEZPENAK

ERANDIOGOIKOA
Gizarte-Etxea
Maiatzak 25, ostirala
19:00

ASTRABUDUA
JOSU MURUETA (GELA URDINA)
Aguarango esperientzia
Maiatzak 30, asteazkena
19:00

ALTZAGA
HAPO (PGOU) GELA (UDALETXEA)
Maiatzak 23, asteazkena
Derioko esperientzia
19:00






ARKOTE | Gurasoen eta seme-alaben arteko estropada

Arraunak batutako familiak

Datorren zapatuan batel-estropada berezia antolatuko du Arkote arraun-taldeak: klubeko 12 eta 13 urteko neska-mutilek desafioa edukiko dute euren gurasoen aurka. 13:30ean hasiko da erronka, Plentziako portuan.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Belaunaldien arteko estropadan ontziek itsasadarrean gora egingo dute eta Piruliraren parera joango dira, ziaboga egitera. Estropada portuan amaituko da, 1.000 bat metro beteta. Klubaren ustean sei minutuko iraupena edukiko du probak, gutxi gorabehera.

Joseba Bilbao Ormazza entrenatzaileak azaldu duenez, ontzi bakoitzean launa batelarik eta patroï banak jardungo dute, eta irabazleek bandera bat jasoko dute, ohiko estropadetan legez. Gainera, entrenatzaileak ezustekoren bat agindu du. Lehiaren ostean, denek elkarregaz bazkalduko dute. Bazkaria izan zen ekimen horren abiapuntua, hain zuzen: gurasoak harro zeuden seme-alabek egindako lanaz eta aita-amek eurek eta entrenatzaileek edukitako inplikazioaz eta partizipazio-sentimenduaz. Hala, otordua finkatzen zeudela gehitu zioten erronka.

Bilbaoren ustean, «familien inplikazio barik ez dago ume horien garapen integralean beharrezkoak diren parametro denak; familiak ere parte dira gure planteamenduan eta inplikatu egin behar ditugu, bideak eskainiz, eurak sentitzeko Arkoteko partaide. Hori indar handiko eredu da gure txikerrentzat».

Entrenatzaileak azaldu duenez, «gura dugu ekimena omenaldia izatea gure gaztetxoentzat ere. Aurten bizi izandakoa handia izan delako, eta familiak horren partaide dira». Berbarako, gaztetxoak Bizkaiko Txapeldunak izan dira, eta aurrekoan bigarren izan ziren Bermeon, segundo bateko aldeaz.

ENTRENATZEAZ GAINERA, HEZI. Arkoten, maila txikietako entrenatzaileek ikasturte bi daroatzate lantzen arraunlarien familiek klubeko bizitzan gehiago parte-hartzea. Bilbaok akordura ekarri duenez, «ezarri genuen helburu zehatz bat: kirola tresna izatea, bizitzan hezteko. Eskolan ez ezik, kirolaren birtartez ere landu daitezke hainbat esparru: pertsonala, soziala, emozionala... Eta gure jarduera da esparru horiek ere formazio espezifikoaren bitartez lantzea». Arlo fisikoa eta teknikoa bazeuzkaten «nahiko ondo jorratuta, ezagutza handiagaz», bai-



«Seme-alabek egindako lanarekiko kristoren atxikimendua izatera heldu dira gurasoak», Joseba Bilbaoren ustean. © ARKOTE

Beste desafio bat egingo dute uztailean

Plentziako madalenetan egongo da beste batel-estropada bat, gazte-mailan. Hori dela eta, Joseba Bilbaok erronka bota die Arkoteko gaztetxoei, uztailearen 20ra arte entrenatzen segitzeko. Data horretan erronka izango dute, hasieran pentsatuta zegoen bezala. Izan ere, zapatuan talde mistoetan jardungo dute aita-amek eta seme-alabek. Aldaketa hori azken orduan egin du Bilbaok taldeak orekatzeko, mutiko txikiek abantaila lar zeukatelako.

na falta zitzairen pertsonei dagokien esparrua. «Taldeen edo norberaren heziketan parametro garrantzitsuak dira ikasteko eta kooperatzeko ahalmenak». Hortik jaio zen familien inplikazioa eta konpromisoa isiotzea. Urte bian jorratutako bideak hainbat fruitu eman du, eta zapatukoa beste bat izango da, Arkoteko entrenatzailearen ustez

PRESTAKETAK. Daborduko ia hilabete bi daroatzate entrenatzen gurasoek, astean birritan, zapaturako prestatzeko. Aste honetan egunero dabilta gurasoak eta umeak, «estropada lehiaketakoa balitz bezala», dio Bilbaok. Gurasoek «balorazio oso ona egin dute, oso pozik ateratzen dira entrenamenduetatik, ilusioz eta irribarretsu, nahiz eta batzuetan eurentzat gogorra izan, hainbat urtean kirola egin barik ibili direlako». ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak • goxokiak

Getxoko kirol portua • 944 915 321

ENARA LÓPEZ GALLASTEGI | Sopela Women's Team

«Besteentzat behar egitea da nire lan ohikoena»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Enara López Gallastegi (Bilbo, 1997) Bizkaiko txapeldun berria da, txirrindularitzako maila absolutuan. Sopela Women's Team taldeko txirrindulariak ziklokroseko 23 urtez azpikoek Euskadiko txapela lortu zuen joan den abenduan. Sopelan hasi aurretik, Lópezek hainbat urte eman zituen eskualdeko Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolan.

Zelakoa izan da zure estreinaldia World Tourrean, Emakumeen Biran? Pentsatu nuen gogorrago egingo zitzaidala, baina lehenengo etapa nahiko ondo pasatu nuen. Taldeko onenetariko izan nintzen: 81. postuan geratu nintzen, eta euskal txirrindularietan hirugarren; zoritxarrez, egun horretan Lourdes Oyarbidek (Movistar) klabikula hautsi zuen. Bigarren etapa, erlojupekoa, ez zitzaidan oso ondo atera, modalitate horretan ez naizelako trebea, inoiz ez dut beren-beregi horretarako entrenatu. Hirugarren etapan, momenturik garrantzitsuenean zulatu zitzaidan gurpila, gaina hasi zenean; lasterketa oraindino puskatu barik zegoen. Asko kostatu zitzaidan txirrindulari batzuk, hamar bat, banan-banan harrapatzea. Zorionez lasterketa amaitu ahal izan nuen, baina leher eginda amaitu nintzen!

Hobeto ibili zinen Zeberion, Bizkaiko txapela irabazi zenue-nean? Bai, askoz hobeto. Emilio [Ramos, Sopelako zuzendaria] berbetan hasi zitzaidan, txapela irabaztera joan nendin. Ni oso lasai nengil, 23 urtez azpikoa irabaziko nuelakoan, baina berak absolutua irabazteko esan zidan. Horretarako borrokan zebilen Eider Merino (Movistar) ere. Hala, artega ipini nintzen. Hasieratik erasoei adi egon nintzen, txirrindulari gutxi ginelako, hiru baino ez. Banekien denetara irten beharra nuela eta ihesaldi guztietan sartzen ibili nintzen, baita Bizkaia Durango taldeko [Alice Maria] Arzuffi italiarragaz joan ere; hori ez zitzaidan oso ondo atera. Geroago beste ihesaldi bat sortu zen Eider Merino barik. Halere, taldean sartzea lortu zuen. Azkenean, esprintean irabazi nion. Ez dakit zelan, baina irabazi egin nion.



Txinako Guizhou Nazioarteko Panoramán izan ezik, Sopelako Women's Team lehiatu den proba denetan egon da López. © SWT

Ziklokrosa eta lesioa

Joan den abenduan, Enara Lópezek beste txapel bat jantzi zuen: Euskadiko Ziklokros Txapelketarena, maila absolutuan. Betidanik asko gustatu zaio ziklokrosean ibiltzea baina garaipen hura berezia izan zen berarentzat, lesio batek urte biz baldintzatuta egon zelako aurretik: «Peronea hautsi nuen, baina hausketa baino gehiago leherketa bat izan zen», ekarri du gogora. Hezurra birkokatu behar izan zioten, «apurka-apurka». Urte biko handiak izan zituen, eta pentsatu zuen txirrindularitza utzi beharko zuela. Medikuek ere esan zioten ezin izango zuela bueltatu txirrindularitzara, txarto zeukala hanka. Urte bat behar izan zuen oinez ibiltzeko. Gainera, ziklokrosean jardutea oraindino gogorragoa da lesioetarako. Aukera eduki zuen bueltatzeko, «konstantziari esker», Manu González bere prestatzaileak dioenez. «Irmotasun horri esker lortu izan dut Sopela taldean egotea», azaldu du Lópezek.

Euskaldun txapelketan ere borrokan zabilzate. Zelan ikusten duzu egoera? Ez da Espainiako Kopan bezala, lan egitea tokatu zitzaidalako eta sailkapenean asko jaitsi nintzelako. Euskaldunen hobeto hasi nintzen, Eibarren, eta puntu nahikotxo lortu nituen. Dena den, nire asmoa da Sara Martin taldekideari laguntzea, hura baitoa aurretik. Horrek ez du esan nahi nik postu onen bat egin ezingo dudarik Euskaldunen probaren batean.

Talde berria zarete; zelan daroatzazue konfiantza eta elkarlana? Horrelakoetan zuzendariei eta taldekideei konfiantza hartzea kostatzen da, baina hobetzen goaz, apurka-apurka.

Zein da zure beharra taldean? Ohikoena da besteentzat behar egitea, kar, kar. Baina lantzean behin aukera izaten dut leku onen bat egiteko. Orain arte, errodadore-lanetan ibili naiz, baina gaur egun, Xuban [Errazkin] nire mutil-lagunaren atzetik noanez egun osoan, profil eskalatzaileagoa daukat. Hala ere, Biran... gurasoei esan diet hasia naizela pentsatzen eskalatzaile ere ez naizela, bertan ipini diguten erritmoa ikusita.

Zelakoa izan zen Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolaren taldeetatik Sopelarako jauzia? Asko ikasi nuen Humberto Gómez eta Eneritz Iturriagaz. Garrantzi handia dauka irakaspen onak txikitatik izateak, eta oso pozik ibili nintzen Mendiz Mendi eta Balmasedana taldeetan ere. Sopela Women's Team taldeagaz oso eskertuta nago eman didaten aukeragatik. ◀

ander deuna
i k a s t o l a

Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus



GETXO | 2018ko Aurrekontu Orokorra

Gobernu-taldeak akordioa lortu du PP alderdiagaz

Aurtengo Aurrekontu Orokorra onartzeko akordioa egin dute Getxoko Udaleko Gobernu-taldeak (EA) eta PSE-EE) eta PP taldeak. Horretan aurreikusten da, besteak beste, Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) inguruan hainbat oinarri ipintzea. EH Bilduren arabera, akordio horrek murrizpenak ekarriko ditu gizarte politikan, «eta gainerako arloetan ez du ezer aldatzen, Alkatetzan salbu, haren aurrekontua handitu baita», salatu dutenez.

GETXO | Espainiako selekzioa ikusi guran

Ciudadanos taldeak eskatu du Espainiako futbol-selekzioa Munduko Txapelketan jokatu dituen partiduak udal-instalazioetan ematea.

GETXO | Ibar Nagusien Etxea



Lekualdatzearen kontrako itxialdian jarraitzen dute nagusiek.

URIBE KOSTA | Zerga operazioa

Sortuk jakinarazi duenez, Guardia Zibilaren Zerga operazioak eskualdeko hainbat preso ohiren ondasunen aurka jo du baita ere.

ERANDIO | Aurrekontuak

Erandioko Udal-gobernuak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua egingo du udalerrian, hirugarren urtez segidan. Tailerrak egingo dituzte.



SOPELA | 155. artikularen ezarpena Katalunian

Pintaketak egin dituzte PSE-EEren Sopelako egoitzan

Pintaden bidez, Katalunian 155. artikulua mantentzean sozialisten erantzukizuna salatu dute hainbat ezezagunek. Bizkaiko Sozialisten Batzorde Betearazleak pintadak kondenatu ditu.



ERANDIO | Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Julen Erezumak irabazi du Erandioko saioa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarrri Faseko azken-aurreko sailkapen saioa jokatu zen maiatzaren 20an Erandion. Eskualdeko ordezkariak Paule Loizaga eta Galder Bilbao 'Txapi' izan ziren.



SORTU ALGORTA | Euskaraldia

«Euskararen aldeko sareak eta konfiantzak artikulatzea ezinbestekoa da»



EHKO MUGIMENDU FEMINISTA | «Feministok gerrari planto!»

«Funtsezkoa da gatazken erresoluzio-prozesuetan ere emakumeen parte-hartzea»

190

Bi Sport enpresako langileek 190 egun baino gehiago bete dituzte greba mugagabeen, Erandioko kiroldegietako lan-hitzarmen baten alde. Zapatuan, hilaren 26an, herri-martxa egingo dute, 11:00etan, Josu Murueta plazatik abiatuta.

Ez utzi plateran janaririk, eroan



Janaria alferrik ez galtzeko ekimena sortu dute EHUK eta Ostalaritza Eskolak.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Getxoko Kultur Etxeari esker, Jorge Drexler artistaren kontzertuaz gozatzeko sarrerak zozkatuko ditugu

Ekainaren 22an (barikua) Jorge Drexlerren emanaldiaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, ekainaren 3a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Maiatzeko saria



Udako egun beroetarako bitxikeriak, Ad^ola online-dendari esker

Poltsa, belarritakoak, diru-zorroa eta betaurrekoak gordetzeko zozkatuko ditugu.

Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		2		5	
					3
8		9	4		2
9	8	6		2	3
			3		7
		7			8
			2	4	
4		6	7	1	8
7	1				

					8
		6	4	8	
4				7	2
		9	3		
	1				3
2			1	7	
			8		
7	2				1
9	5		1		3

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpi-lauki bakoitzean.

3	9	7	1	4	2	5	8	6
1	6	8	3	9	5	7	2	4
4	2	5	7	4	1	8	3	6
9	5	8	1	7	8	6	2	4
8	6	9	3	4	5	7	1	2
2	5	1	7	2	9	6	3	4
7	1	2	5	4	9	8	6	3
5	4	9	8	6	3	7	1	2
6	3	7	2	9	3	7	8	1
8	6	5	1	4	8	9	2	7

2	9	6	4	8	5	3	1	7
8	5	3	1	6	7	9	2	4
1	3	5	8	2	6	4	7	1
9	8	6	5	2	7	4	1	3
7	1	3	7	4	5	2	9	6
4	7	1	4	7	3	9	1	6
3	5	2	3	5	6	1	7	2
6	8	4	6	1	7	2	3	5
8	5	1	9	4	3	7	2	6
3	7	9	2	6	8	5	1	4

Hitza emanda

Bidaia

Kariben, Maldibetan deskantsu lasaia, ilargi edo Martera sputnik-an jaia, errepublikara arte badoa anaia... Nolanahikoa izan daiteke bidaia!



GALDER BILBAO MARTINEZ «TXAPI»
Udondo

ALBE
Algotako Bertsolari Eskola

Flashback Berangoko Alaitasuna taldea Sopelan 1976

UNAI BREA ▶

Alaitasuna izan zen Simon Otxandategi taldearen gaur egungo kantu-atalaren aitzindaria. 1970ean sortu zen, euskal kantuarrekiko grina zeukaten hainbat gazte berangoztarren eskutik; gehienak Otxandategin ere bazebiltzan, eta hantxe segitu zuten gerora, talde bien arteko lotura estua zen eta. Argazkian, Sopelako elizaren atarian ageri dira Alaitasunako hainbat kide, ezkontza batean kantatu ostean. ◀

ARGAZKIAN:

Behoko lerroan: 1 Juanra Gallego (+), 2 Juan Ignacio Mentxaka, 3 Julen Olague, 4 Iñaki Gonzalez, 5 Manuel Brea, 6 Unai Brea.

Erdian: 7 Polentzi Gonzalez, 8 Puri Bego Larrazabal, 9 Mari Tere Gonzalez, 10 Miren Bego Torrontegi, 11 Jon Celaya Mier, 12 Jone Yurrebaso, 13 Sorkunde Yurrebaso, 14 Miren Bego Fernandez, 15 Olatz Terrones.

Atzeko aldean: 16 Jon Celaya Sierra, 17 Maria Jesus Uriarte, 18 Mari Carmen Celaya, 19 Igone Zunzunegi, 20 Maria Asun Mas, 21 Ana Mari Iturriaga, 22 Joselu Gonzalez, 23 Inmaculada Santamaria, 24 Fernando Sangroniz, 25 Eleni Uriarte, 26 Jose Javier Ormazabal Txarra, 27 Jose Angel Libano.



MARI TERE GONZALEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



ALBE

Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA
Nahikari Ayo Acebo

DOINUA
Espainian behera

ARGAZKIA
Egoitz Sierra

Eguzki izpi bat

Batzuk esaten dute
"hau al da magia?"
Jada ohitu egin gara
sufritzen euria.
Zerutik etorri da
itzela oparia.
Izpi bat sumatzen da
hau bai miraria!
Behingoz ikusi dugu
eguzki argia.

Uribe Kostak dauka
ederra paisaia,
Barrika, Gorliz, Plentzia
bai leku lasaia.
Hortxe ikus daiteke
mendia, talaia...
Nahiz ta euria izan
askotan etsaia,
herriez gozatzeko
badugu garaia.

Urano jainko horrek
zaintzen du zerua,
eta hari eginez
orain erregua:
udaberria bertan
jadanik heldua,
nahiz eta orain agertu
zeruko aingerua...
ia lehenbailehen joaten
ote den negua!